

## Hamazazpi proiektu aurkeztuko dira irailean, karrera amaierakoak

2010/09/13

**Irailaren 13tik 24ra bitartean**, 17 karrera amaierako proiektu aurkeztuko dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Horietatik **14 ikus-entzunezko komunikaziokoak** izango dira eta **4 Humanitateak-Enpresa karrerakoak**. Hauek dira proiektuak:



- **Ikus-entzunezko komunikazioa**
  - Garazi Garate eta Maialen Oleaga: Hirusta.
  - Ariane Retegi: Pello Añorgaren webgunearen diseinuaren analisia eta garapena.
  - Maite Fraile: Gertu-ko bideo korporatiboa.
  - Zihara Aranbarri: Hamaika Bilbo Telebistako estilo liburua.
  - Libe Anasagasti eta Myriam Eizagirre: "Mujeres concheras de Muisne y la ONG Hegolan" dokumentala.
  - Mikel Beaskoa, Oier Arregi eta Jagoba Domingo: Juakin Galerna vs. Dr. Bocanegra.
  - Maria Gaztelupe: Tipi-tapa aldizkariaren azterketa.
  - Paula Besga eta Leire Barturen: Getxo: azala eta barrena.
  - Ibai Vigil-Escalera eta Irune Gurtubai: "Iraganeko koloreak" film laburra.
  - Ihintza Irizar eta Idurre Lazkano: Kooperatibismoaren 10 printzipioen inguruko ikus-entzunezkoen ekoizpena (2. eta 8. printzipioak).
  - Jon del Campo: AGT enpresaren bideo korporatiboa.
  - Rebeca Rodrigo: El gato negro productions S.A.
  - Naroa Etxebarria: Clint Eastwood-en "Unforgiven": azterketa tematiko-narratiboa.
- **Humanitateak-Enpresa**
  - Irati Goitia: Las SS en Fit Automoción.
  - Maider Beldarrain: Kultur atelieren kudeaketa hobekuntzarako analisia eta proposamena.
  - Iurre Madinabeitia: El camino a la excelencia.
  - Jon Koldo Akordarrementeria: Erakunde pribatu baterako ikastaroen promozio erak.

### Ezinbesteko lana

Bai ikus-entzunezko Komunikazioan eta baita Humanitateak-Enpresa ikasketetan, ikasle guztiek **ezinbestekoa** dute karrera amaierako proiektua egitea, **titulua lortzeko**. Proiektuaren helburua da ikasleari lan serioa eragitea, ikasketetan gainditu behar izan duena baino konplexuagoa. Lanak bi alde izaten ditu, teorikoa eta praktikoa, eta, bukatutakoan, epaimahai baten aurrean aurkeztu behar izaten da.